



IRUTXULOKO HITZA

2024
EUSKARAREN EGUNA
Donostian



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Egunez egun euskara lagun



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus

Bihur zaitez AHOBIZI HITZEZ Euskaltegian



GROS-en
ikas ezazu



Kolon pasealekua, 5 behea
GROS - 20002 DONOSTIA



943-27 81 55



hitzez@hitzez.eus



www.hitzez.eus

Egunero da

Urtean egun batez ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3an. Horren bueltan, askotariko jarduerak antolatu ohi dituzte erakundeek eta herri eragileek Euskal Herriko auzo, herri eta hiri ugarian, euskararen aldeko aldarrikapenak egiteko, baina baita euskara jai giroan bizitzeko ere. Korrikarekin eta Euskaraldiarekin batera, euskarak duen mugari garrantzitsuenetako bat da.

Ordea, topiko bat bada ere, kasu honetan egia da: egunero da Euskararen Eguna; hala beharko luke izan, behintzat. Zeren, hizkuntza gutxitu bat den heinean, egunero sustatu behar da; egunero borrokatu behar da bere normalizazioaren alde.

Eskubideak lortzeko bidea oso malkartsua eta luzea delako, baina lorpen horiek galtzeko bidea ez da halakoa: erabaki politiko eta toga kolpe batzuk baino ez dira behar, pribilegioak galdu nahi ez dituzten horien kanpainez lagundurik. Bai euskarari dagokionez, bai beste hainbat arlori dagokienez.

Euskararen Eguna ospatu behar da, baina are beharrezkoagoa da egunero ekarpenak egitea. Askotarikoak izan daitezke: lehen hitza euskaraz egiten saiatzea, euskara ikasteko pausoa ematea, euskara ikasteko erraztasunak jartzea, euskal kultura kontsumitzea, auzoetako euskara batzordeetan antolatzea, hizkuntz eskubideak defendatzea, mobilizatzea, erakundeei konpromisoa exijitzea, gure bizilagunekin egiten saiatzea, eta abar.

IRUTXULOKO HITZAn zentzu horretan egiten dugu lan. Garaiaren kronika behetik gora egin nahi dugu, eta, horretarako, guretzat ezinbestekoa da tokikotik eta euskaraz lan egitea. Horrela, euskararen normalizazioaren aldeko gure ekarpena Donostia den horretan kontatuz egin nahi dugu, eta horretarako, ezinbestekoa dugu zure babesa. Bakarrik ezin delako, baina saretuta eta elkar babestuta bai.



Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

943-46 72 36

donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2024ko abendua

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aaizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo
.hitza
.eus



«Ezin gara epaitegien beldurrez egon»

EDURNE OTAMENDI GARMENDIA

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko zuzendaria

Ate joka dugu Euskararen Eguna, eta, horren harira, udaleko Euskara Zerbitzuko zuzendari Edurne Otamendirekin elkartu gara. Abenduaren 3az, Euskaraldira begira egiten ari diren lanketaz, euskara planen xehetasunez eta euskararen egoeraz mintzatu gara berarekin.

📷 Beñat Parra Rodriguez

Nola bizi duzue Euskararen Eguna Euskara Zerbitzutik?

Garai batean, ez zen gauza handirik egiten Euskararen Egunaren harira, baina, pixkanaka, gauzak antolatzen hasi ginen, eta jardue-
ra indartsuak egin izan ditugu; urtearen arabera.

Aurten, urte lanpetu samarra eduki dugu: administrazioko plana onartu behar izan dugu, euskararen plan orokor berria lantzen hasiak gara, Euskaraldia ate joka dugu, eta abar. Euskararen Egunak horren guztiaren erdian harrapatu gaitu, eta, beraz, bizi dugu auzoetan euskararen alde lan egiten duten boluntario eta eragileak mugiarazteko. Motibazioa eta sentsibilizazioa indartzeko.



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

Gora euskara!

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**





«Topikoa badirudi ere, Euskararen Eguna urteko 365 egunetan da niretzat; eguneroko lanak balio du»

Eta, zuk nola bizi duzu Euskararen Eguna?

Normalean, jardueraren batean parte hartzen dut, urtearen eta eskaintzaren arabera. Hala ere, maila pertsonalean, topikoa badirudi ere, Euskararen Eguna urteko 365 egunetan da niretzat; eguneroko lanak balio du.

Nolako jarduera eskaintza izango dugu aurten hirian?

Alde batetik, Euskal Herri osoan, Gozaldia Eguna ospatuko dugu azaroaren 30ean. Euskaraldia udaberrian izango denez 2025ean, horren lehenengo mugarri gisa ikusten dugu Gozaldia. Euskaraldia, betiko legez, lotu nahi izan da Euskararen Egunarekin, eta horren festa giroarekin. Horrela, auzoetako euskara batzordeei lagundu diegu, urteroko legez, jarduerak antolatzen, baina bereziki fokua jarrita Gozaldian. Nolabait, herritarrei gogorarazteko Euskaraldiak data aldatu duela eta badatorrela.

Horrez gain, auzo gehienetan antolatu dituzte jarduerak, hainbat egunez. Balioan jarri behar dugu auzo askotan ditugula urte osoan zehar lan egiten duten euskara batzordeak eta beste hainbat auzo-



2022ko Euskaraldiko mintzodromo bat. JOSEBA PARRON

tan Euskararen Egunaren bueltan antolatzen direla talde batzuk. Halaber, Gau Beltzeko jarduerak ere euskara batzordeek antolatzen dituzte auzo askotan; euskararen inguruko beste mugarri bat da, egun, Gau Beltza. Horrek guztiak erakusten du badagoela Donostian euskararen alde lan egiteko gogoia. Urte luzez euskararen alde egingdako lanaren emaitza da. Azkenean, auzo elkarte beteranoak ditugu hirian, baina berriak ere ari dira sortzen.

Euskararen Egunaren atarian, 'Bizkarsoro' filma zinemetara iristea lortu duzue.

Euskararen Egunaren harira, egitarauetz gain, egitasmoren bat gehiago antolatzen saiatu ohi gara. Alde batetik, euskarazko produktuen gida argitaratu ohi dugu, gurasoek jakin dezaten 12 urtetik beherakoentzat zer kultur eskaintza dagoen, Gabonetara eta Durangoko Azokara begira.

Bestetik, Bagera elkarteak lortu du SADEK *Bizkarsoro* proiektatzea Donostian. Horren harira, abendua- ren 16tik 18ra, DBHko, zikloetako eta Batxilergoko ikasleentzako proiektatuko dugu filma Antzoki Zaharrean. Horretarako, unitate didaktiko bat ondu dugu, ikasleek



Aurrera euskara!
EKINTZA



'Bizkarsoro' filma Donostiako zinema areto komertzialetan ematen ari dira.

aurretik klasean landu dezaten, filma ondo ulertzeko; euskararen egoeraren eta horren aldeko borrokaren bilakaera nolakoa izan den ulertzeko.

Euskaraldia aipatu duzu. Zer moduz doa antolaketa eta zer helbururekin zoazte Euskaraldira?

Data aldaketa erronka gisa ikusten dugu, kale harremanetarako aukera gehiago ematen dituelako udaberriak, eta horrek beste izaera bat eman diezaioke Euskaraldiari. Antolaketari dagokionez, Bagera elkartearekin batera gabiltza lanean buru-belarri, talde motor gisa, hasieratik egin dugun moduan. Ondoren, talde eragi-

le bat sortuko dugu, bestelako eragileekin batera antolatzeko Euskaraldia. Erronkei dagokionez, kalera ateratzea da erronka nagusia, euskara eta Euskaraldia jai giroarekin eta gozamenarekin lotuz. Halaber, lehenengo urtean piztu zen ilusioa berreskuratzea ere erronka gisa ikusten dugu, gure ustez, Euskaraldiaren ariketa eta horren inguruan mugitzen den guztia oso aberasgarria delako.

Udal barruan euskara normalizatzeko zaspigarren plana onartu zen maiatzean. Nola funtzionatzen duzue udal barruan euskarari dagokionez?

Etorkizunera begira, nagusiki

euskaraz arituko den erakunde gisa irudikatzen dugu udala, denekin eta testuinguru guztietan euskaraz lasai egin daitekeen eremu gisa eta hizkuntzaren normalizazio prozesuan erreferente izango den erakunde gisa. Zentzu horretan, lorpen batzuk baditugu: langileen %83ak gutxi gorabehera, bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dauka eta %6ak dagokiona baino bat gutxiago dauka egiaztatuta. Ulermena, beraz, esan dezakegu %90ean dagoela.

Aurrerapauso handiak eman ditugu zentzu horretan, eta, etorkizunera begira, euskarazko espazioak eskuratzen joan behar gara. Nagusiki euskaraz lan egiten duten espazioak dira horiek, euskarazko



«Etorkizunera begira, nagusiki euskaraz arituko den erakunde gisa irudikatzen dugu udala»

administrazio atalak deitzen diegunak. Egun, halako hamabost inguru ditugu udalean, eta irradiazio lan bat egiten dute beste departamentuen euskararen erabileran; euskararen gune babestutzat ditugu. Badakigu, hala ere, oraindik hutsuneak ditugula eskaintzen ditugun zerbitzu batzuetan, eta horiek betetzea da helburua.

Euskararen plan orokorra ere lantzen hasiak zarete. Zer aurreratu daiteke?

Hamar urtera begira ari gara lan egiten. Oraingoan, ez da horrenbeste izango plan sektorial bat, baizik eta plan globalago bat, Jaurilaritzak onartu berri duen Aroa marko estrategikoari jarraiki. Zeharkakotasuna gehiago kontuan hartuko duen plan bat izango da. Betiere, askotariko eragileekin partaidetza prozesu bat garatuta osatuko dugu plana.

Erronken artean, gaitasun

An advertisement for 'Oiartzun' bakery. It features a large white cake with orange frosting and white cream. The text 'Oiartzun' is written in a large, white, serif font at the top. Below the cake, it says 'Aurrera euskara!' in a bold, white, sans-serif font. At the bottom, there is contact information: 'Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09', 'Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07', and the website 'www.pasteleriaoiartzun.com'. There are also social media icons for Facebook and Instagram.



Euskararen aurkako oldarraldi judiziala salatzen elkarretaratze bat. © JOSEBA PARRON

erlatiboa edo ezagutza maila ona edukitzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Orain arte, galdegin izan dugu dagoen ezagutza mailarekin nola egon daitekeen dagoen erabilera maila. Horren harira, Iñaki Iurrebasok egin duen tesian argi gelditu da erabilera indartsua izateko gaitasunak ona izan behar duela. Eta, gaitasuna ona da egun, baina hemen bi hizkuntza izaten jarraitzen dugu, eta, jende gehiena beste hizkuntzan hobeto moldatzen da, euskararen baino. Horri gehitzen badiogu gero eta etorri berri gehiago ditugula eskoletan, eta horientzako zein beste askorentzako eskola dela euskararen erabiltzeko espazio bakarra,

argi dago indartu behar ditugula euskararen ezagutza indartzeko egitasmoak eskoletan eta aisialdian. Zentzu horretan, lan handia egiten ari gara, hainbat arlotan, eta are gehiago egin beharko dugu aurrera begira.

Euskararen aurkako hainbat epai atera dira azken hilabeteotan, hizkuntza eskakizunei dagozkienak. Nola egiten diozue aurre horri?

Azken 35 urteotan, administrazioa joan da progresiboki betetzen legeek eta dekretuek eskatu diotena, gizartearen onspenarekin. Hasteko, langileak elebidunak izan daitezkeen urratsak egiten eta langile horiek euskaraz lan egiten jartzen;

betiere, herritarren hizkuntza aukera bermatuz. 35 urteren ondoren, maila garrantzitsu batzuetara heldu gara; guk ulertzen dugu administrazio batek elebiduna izan behar badu, langile elebidun ez osatuta egon beharko duela.

Orduan, orain iristen ari diren sententzia asko atera dira norbanako batzuen interesetik eta egonkortze prozesuak ere eragin ditu. Baina, iruditzen zait ezin garela egon epaitegien beldurrez eta orain arte egin dugun bidea, proportzionala eta progresiboa egiten jarraitu behar dugula. Maila onean gaude eta ezin dugu atzerapausorik eman. ●

ENBATA





Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
 943424797 - 609314962
 enbatadenda@gmail.com
 www.enbata.eus





«Kalean ez dago euskara erabiltzeko erosotasunik, ezta erraztasunik ere»

AMETS IBERO ETA MADDI JUANIKORENA

Bagera elkarteko kideak

1991z geroztik dabil lanean Bagera Donostiako Euskaltzaileen Elkartea, donostiarrak modu eroso batean euskaraz bizi daitezen. Elkartearen jardunaz beraz, euskarak Donostian duen egoeraz eta azken hilabeteotan euskarak sufritu duen oldarraldiaz mintzatu dira, besteak beste, elkarteko Amets Ibero eta Maddi Juanikorena.

📷 Nagore Garmendia Artano

Euskararen aldeko jarrerara hurbiltzeko eta jendartea euskararen alde aktibatu eta kontzientziazteko sortu zenuten elkartea. Urte mordoaren ondoren, beste helbururik gehituko zenukete zuen jardunera?

Amets Ibero (A.I.): Sorreratik dugun helburu berarekin jarraitzen dugu: Donostian modu eroso batean euskaraz bizi ahal izatea. Kontziente gara gizartea etengabe aldatzen ari dela, baita horrekin harremantzeko moduak eta gizarteari eragiteko moduak ere, eta gure helburua horietara moldatu nahi dugu. Helburua baino, egiteko modua da denborarekin aldatzen duguna.

Zein modutan aktibatzen dituzue donostiarrak euskararen aldeko ekimenetan?

A.I.: Finkoak diren egitasmo batzuk daude, ahal dugunean berritzen saiatzen garenak, eta



#geroa
2030

Euskararekin bat!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66



axular
lizeoa



badaude beste batzuk, horien bidez gai desberdinak jorrazten ditugunak, urtero. Mintzalaguna egitasmoa, adibidez, finkoa da. Gehien ezagutarazten gaituena da, eta talde txikietan euskaraz mintzatzeko eta praktikotasuna bultzatzeko egitasmo bat da. Duela urtebete sortu genuen Ulerlaguna, baita ere, ezagutza maila baxuko pertsonetan zentratua.

Maddi Juanikorena (M.J.):

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko mailarik ez dutenak dira Ulerlagunan parte hartzen dutenak. Euskaltegian dabilta, baina saltoa ematea falta zaie, hitz egiterako garaian.

A.I.: Aniztasunean lerro indartsu bat ere badaukagu, gero eta gehiago jorratu nahi duguna. Gure ustez, oraindik badago eragiteko nahikoa espazio hor, eta euskarara hurbiltzeko saio batzuk dauzkagu, horretarako. Ongi Etorri Eskolara elkartearekin ere elkarlanean gabilta, jatorriz etorkinak diren ikasleak euskarara hurbiltzeko eta era akademiko batean eragiteko, eta iaz jarri genituen martxan Gatoz eta Goaz saioak, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak euskarara hurbiltzeko. Euskalduntze tailerrak ere badauzkagu, euskara eta feminismoa uztartzen dituztenak, normalean institutuetan ematen ditugunak, zerbitzu gisa. Eta abar, eta abar. Hor badago bide nahiko luze bat egiteko, eta hori bada etorkizunerako gure erronketako bat.

Euskal jendartearen ezaugarrien



Hainbat herritar, Euskaraldiko txapak soinean jartzen. **JOSEBA PARRON**

eta beharren aldaketa aipatu duzue, baita hizkuntzarena berarena ere. Zein da euskararen egoera orain, Donostian?

M.J.: Datu soziolinguistikoez adierazten dute euskararen normalizazio eta biziberritze prozesua moteltzen ari dela, eta hori ere islatzen da hirian. Kopuru absolutuen irakurketak egin izan ditugu: hiztun kopurua, erabilera... baina badaude beste aldagai batzuk interesgarriagoak izan daitezkeenak, errealitatea hobeto ulertzeko. Azkeneko datuetan, ikusi dugu Donostiak dituen gune euskaldunagoetan ere beherantz doala



AMETS IBERO
BAGERA ELKARTEA

«Aniztasunean lerro indartsu bat ere badaukagu, gero eta gehiago jorratu nahi duguna»

euskararen erabilera, eta kezkarria da: %17,4ak du hizkuntza gisa euskara Donostian, eta hiztunen %10,5ak erabiltzen du egune-



GANDARIAS
jatorria



Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia
943-42 63 62
www.restaurantegandarias.com





Euskararen aurkako epi asko eman dira azkenaldian. JOSEBA PARRON

rokoan, gaztelania baino gehiago. Egoera larri batean gaudela adierazten diguten datuak dira.

A.I.: Lehen askoz ere modu naturalago batean bizi ginen euskaraz, eta orain hautu kontziente bat da. Norberak du bere erantzukizuna horretan.

Zertan eragin beharko litzateke, orduan?

M.J.: Uste genuen motibazioan jarri behar genuela arreta eta Bageran proiektu asko sortu izan ditugu

horretan eragiteko, baina hiztun batek euskaraz hitz egiteko behar dituen baldintzak aztertu behar direla iruditzen zaigu. Ikasketen alorrean, haur eta gazteen gehien-goak D ereduan ikasten du, baina gaitasun minimoak lortu arren, ez da nahikoa gero egunerokotasunean euskaraz egiteko, ez delako erosoan egiten zaien hizkuntza, eta hizkuntza bat ez baduzu modu erosoan sentitzen, ez duzu hitz egiten. Gure hizkuntzak duen ahultasun



MADDI JUANIKORENA
BAGERA ELKARTEA

«Euskal hiztun batek euskaraz hitz egiteko behar dituen baldintzak aztertu behar dira»

egoerarekin lotura estua duen zerbitzua da hori, hizkuntza gutxitu bat den heinean.

Hainbat epaitegik euskara gutxien duten erabakiak hartu dituzte, azken hilabeteetan. Nola baloratzen gertatzen ari den hori guztia?

M.J.: Oldarraldi baten erdian aurkitzen gara, azken hilabeteotan areagotu dena baina lehenagotik zetorrena, eta hizkuntzaren normalizazio prozesua salbuespen egoeran jarri du. Donostian ere izan ditugu zenbait sententzia azken hilabeteotan, eta badakigu gehiago etorriko direla. Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri du, horren ondorioz, larrialdi linguistikoko batean aurkitzen dela gure hizkuntza; gizartea aldatzen ari da eta hizkuntza gutxitu batek ez dauka tokirik hor; horrek egiturazko oztopo nabarmenak sortzen ditu. Politikan, jauzi bat behar da, eta, Donostiako Udalak, dituen baliabideekin, bere alea ere jarri beharko lukeela uste dugu.

Duela urtebete hasi zineten euskararen egoerari buruz

Urrats
euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia

Trikuharri
taberna

Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatek.com



hausnartzeko plan estrategiko bat lantzen. Zein da orain plan horren egoera?

A.I.: Nahiko erronka handia dago. Donostiako biztanleriaren %32a erdaldun elebakarra da, eta, hortaz, euskaldunoi ez digu uzten, gure osotasunean, euskaraz bizitzen, nahi izan arren. Horri soluzio bat bilatzearen, plana Euskaraldiarekin lotuko dugu, udaberriari. Hizkuntzak ez du bermatzen, askotan, hizkuntza gaitasuna, eta horrek esan nahi du, nahiz eta gero eta gazte gehiagok euskaraz jakin, kalean ez dagoela erosotasun eta erraztasunik erabiltzeko. Aktibazio soziala ezinbestekoa da, baina argi dago ez

dela nahikoa, eta bi modutan egin daiteke. Lehen: instituzio publikoetatik etorri beharko liritekeen baldintza batzuk eman beharko liriteke. Bigarrena, Donostiako eragile sozialekin eta arduradun politikoekin elkarlanean aritzea izango litzateke. Garrantzitsua da, baita ere, euskara ardatz izan-go duen harrera integralerako protokolo bat garatzea, ez direlako nahikoak sortzen ditugun proiektuak. Donostian hizkuntzaren transmisioan eta biziberritzean ematen diren aldaketa prozesuak aztertzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, euskarak indarra eduki dezakeelako familian, lagun artean edo auzo harremanetan,

eta, hiri txikia izanik, auzo eta komunitate horiek zaintzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, euskara bermatze aldera. Komunitatea sortua dago, baina sendotzea garrantzitsua da.

Euskararen eguna dator. Ospatzeko egun bat da?

M.J.: Horrelako mugarriak garrantzitsuak dira edozein borrokaren ikusgarritasunerako, eta euskarak ere behar ditu, baliagarriak direlako gure diskurtsoa zabaltzeko. Baina, gure lerroetako bat da euskarak 365 egun dituela eta ez dugu bereziki egun horretan ezer berezirik egiten, baizik eta egunero txertatzen dugula gure jardunean. ●

Lanbide
Heziketako
Ikastetxe
Integratua



easo
politeknikoa



Aitzol parkea, 2, 20011 Donostia 943-45 54 22 @EASOPolitek



2024
EUSKARAREN EGUNA
Donostian

Azaroaren 29tik abenduaren 3ra
120 ekintza 17 auzotan

www.donostiaeuskaraz.eus



**ILAZKI**
EUSKALTEGIA

*Euskara
ahoa*

HABEK diruz lagundua
HABE  EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

Hainbat euskaltzale, topaketa batean.  INAXIO ESNAOLA

Auzoetan euskara bizirik mantentzeko ezinbestekoak

Donostian, asko dira auzoetan lanean diharduten euskara batzordeak, Euskararen Egunetik harago, urtean zehar ere euskararen sua piztuta mantentzeko.

 Beñat Parra Rodriguez

Donostia euskararen hiria dela esan ohi da sarritan, eta, hala baldin bada, egunero-egunero euskararen alde lan egiten duten euskaltzaleei esker da; klandestinitatean hizkuntza irakatsi eta ikasi zutenetatik,

auzoz auzo euskararen aldeko egitasmoak antolatzen dituztenetara, oztupoen gainera euskaraz bizitzeko hautua egin dutenetatik pasatuta.

Hain zuzen ere, zabala da Donostiako euskaltzaleen sarea,

eta horren erakusgarri dira urte osoan zehar modu aktiboan lan egiten duten auzoetako euskara batzordeak: Amara Berri, Altza, Aiete, Añorga, Antigua, Egia, Loiolako Erribera, Intxaurren, Gros, Parte Zaharra eta Martutene auzoetako batzordeak dira egun aktibo daudenak. Denek, noski, Bagera Euskaltzaleen Elkartearen eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izaten dute euren jardunean. Aurten, gainera, euskara batzorde berri bat sortu da hirian: Behin Batean Txomiñeneko Euskaltzaleen Elkarte.

Horietako batzuk, Altzako Bizarrain eta Intxaurrenoko Plaza Goaz kasu, beteranoak dira, hogeitertirik gora baitaramatzate lanean. Beste batzuek ez daukate horren ibilbide luzea eta bakoitzak bere auzoaren errealitate soziolinguistikora egokituta egiten du lan, baina denek helburu bera dute: auzoetan eta hiri osoan euskararen erabilera sustatzea eta euskara normalizatzea.

Eskubide eta garaipen hainbat lortu ditu mugimendu euskaltzaleak urteotan, bai Donostian eta baita Euskal Herri osoan ere. Ordea, azkenaldiko oldarraldi judiziala agerian uzten ari da askoz errazagoa dela eskubideak galtzea eskuratzea baino. Horren aurrean, indarrak batzea eta euskararen alde antolatzea eta lanean jarraitzea da bide bakarra; auzoetan, hirian eta Euskal Herrian. ●



Aitor Ikastolan, EUSKARAZ BIZIZ!

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA - 'D' ereduak Konkorrereña, 7 - Ametzagaña, 40 - Tel.: 943-89 94 14
012358aa@hezkuntza.net - www.aitorikastola.hezkuntza.net



Behin Batean Txomiñeneko euskara batzordeko kideak.  BEHIN BATEAN

«Euskaldunak gara eta gure komunitatea ahaldundu nahi dugu»

JOSUNE MAYOR ETA MAITANE FERNANDEZ

Txomiñeneko Euskaltzaleen Elkarteko kideak

Txomiñeneko Euskaltzaleen Elkartea sortu zuten maiatzean, auzoko zenbait bizilagunek. Orain arte, bi jarduera egin dituzte soilik, baina Josune Mayor eta Maitane Fernandez kideen hitzetan, pausoz pauso egingo dute aurrera, euskararen normalizazioan.

 Nagore Garmendia Artano

Euskarak auzoan galdutako presentzia indartzeko sortu duzue elkartea. Zein hutsune betetzen du elkarteak Txomiñenean?

Josune Mayor (J.M.): Auzo berrietara elkar ezagutzen ez duen jende asko etortzen da, eta elkar ezagutzen ez dugun horiek hizkuntzak batzen gaitu. Auzo hau guztiz euskalduna zen lehen, dena baserriak ziren. Baina, XX. mendean, aldaketa handiak egon ziren (militarrak, kartzela...) eta giro oso erdaldun bat sortu zen hemen, landa kutsu euskaldun hori eraldatu zuena. Horrek bultzatuta hasi genuen proiektua. Korrikaren egunean jarduera txiki bat egin genuen, eta harrera ona egin zigutenez, deialdi ireki bat egin genuen.

Auzoaren antzaldaketa aipatu duzue. Zein da, gaur egun, euskararen egoera auzoan?

Irudikatu zure lekua munduan



**SANTO TOMAS
LIZEOA**

Maitane Fernandez (M.F.): Bada-go euskaraz dakien baina gutxi erabiltzen duen jende asko. Duela aste batzuk, auzoan egindako festa batean, taldetxo bat euskaraz ari ginen, eta normalean gazte-eraz hitz egiten entzuten dituzun horiek euskaraz hasi ziren, berehala. Hor konturatzen zara badakitela, baina, agian, pixka bat kostatzen zaiela askatzea.

J.M.: Bizilagun berriak eta lehenagoko bizilagunak gaude taldean, eta orain arte ez zuten ikusten horrelako zerbait aurrera ateratzeko modurik. Auzora berriak etorri garenok handitu dugu auzoko euskaldun multzoa, baina ez dakigu zein proportziotan. Nahiko genuke jendeak jakitea badaudela auzoan euskaraz egiten diren jarduerak, hemen ez dagoelako kasik dinamika soziokulturalik.

Behin Batean du izena elkarteak. Antzinakoari omenaldi polita.

M.F.: Lehenengo bileran erabaki genuen izena. Bilintxen *Behin Batian Loiolan* kantarengatik jarri genion, norbaitek esan zigulako abestiko Loiola hau dela, eta ez Azpeitikoa. Originala, etxekoa iruditu zitzaigun.

Zeintzuk dira elkarteak aurre egin beharreko erronka nagusiak euskararen erabilera sustatzeko?

J.M.: Elkarteak eratzea da nagusiena, eta elkarteko erronkak jartzea. Oraindik ez daukagu definituta, ez diogu formarik eman. Maiatzean hasi ginen eta bi jarduerak egin ditugu soilik, orain arte. Hilabetean behin egiten dugu bilera, eta



Josu Tellabide etnologoaren hitzaldi bat antolatatu zuen elkarteak. OLATZ BALDA

badauzkagu gauza batzuk buruan, baina ez dugu jarduerarik egin nahi egiteagatik, helburu zehatz bat lortzeko jarduerak egin nahi ditugu.

Legalki, elkarte bat izateko prozesuan gaude oraindik; behar dugu gelditu eta pentsatu zeintzuk diren elkartearen lan ildoak eta urtebeteko plangintza bat egin, gutxi gorabehera.

Nola sustatzen duzue euskararen erabilera hitzun ez diren herritarren artean?

J.M.: Oraingoz, dakigun gauza bakarra da gu euskaldunak garela eta gure komunitatea ahaldun-



MAITANE FERNANDEZ
BEHIN BATEAN ELKARTEA

«Euskaldunok euskaraz hitz egiteko ditugun trabak azaleratu nahi ditugu»

du nahi dugula. Gure gustuko gauzak egin nahi ditugu, dena ez da sakrifizioa eta ahalegina. Bizkarsoro filma proiektatu genuenean, euskaraz jarri genuen,

HERRI AMETSA IKASTOLA
www.herriametsa.eus
DONOSTIA 943 39 35 20

MUNDUARI BEGIRA
FAMILIA
EUSKARA
NATURA
LIVIRANDIK GERTU



'Bizkarsoro' filmaren proiektzioa antolatuta zuten Zinemaldi Alternatiboan.

ZINEMALDI ALTERNATIBOA

eta komentatzen aritu ginen oso garrantzitsua izango litzatekeela erdaldunek film hori ikustea. Hasierako bileretan pentsatu genuen euskal kultura izan zitekeela erdaldunak erakartzeko modu bat. Txapa botatzea baino, ekintzen bidez erakartzea. Kulturarekin eta tradizioarekin eragitea.

Zuen ustez, nolako eragina izan-go du elkarteak auzoan?

J.M.: Gure komunitatea ahal-duntzen lagunduko du, gure

artean elkar ezagutzen... haurrak dauzkan jendeak harremanak sortu ditzake parkean, baina haurrik ez dutenek zailagoa dute harreman horiek sortzeko. Komunitatea ere garrantzitsua iruditzen zaigu horretarako. Elkarteak xumea da eta gure jarduerak oraingoz ere bai; pausoz pausoz joan behar dugu.

M.F.: Orain arte egin ditugun jardueretara jende dezente agertu da, *Bizkarsoro* ikustera, gehien bat. Asteaz zehar egin genituen jardue-



JOSUNE MAYOR
BEHIN BATEAN ELKARTEA

«Dakigun gauza bakarra da gu euskaldunak garela eta gure komunitatea ahaldundu nahi dugula»

rak eta euri asko egin zuten, baina jendea etorri zen. Nahiko goian hasi ginen, harrerari dagokionez. **Zenbat kide zarete gaur egun elkartearen? Nola batu daitezke beste herritarrek elkartearen parte hartzerara?**

J.M.: 7-8 gara hilabetero biltzen garenak, baina konturatu gara badagoela inguruan eraztun bat, eta, jarduerak proposatzean, laguntza handia jasotzen dugu. 40 eta 60 urte bitarteko bizilagun batzuek osatzen dugu taldea. Auzoan ez dago jende gazte askorik; familiak daude, baina 20 eta 30 urte bitarteko jende gutxi dago. Euskararen egoerari dagokionez, estrategia aldetik, euskalgintzan pixka bat galduta gabiltzala iruditzen zaigu. Horri aurre egiteko edozein ideia duen edonor da ongietorria.

Finantzazioa nola lortzen duzue?

M.F.: Bilatu behar izan dugu. Alde batetik, Loiolako kultur etxeak lagundu digu antolatuta genuen hitzaldia finantzatzeko. Zinemaldi Alternatiboak, aldiz, filma proiektatzearen gastuak hartu zituen bere

Euskara Lauaizetatik lau haizetara

Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia – 943-89 95 16 – 012958aa@hezkuntza.net

23. Korrika Txomiñenetik pasatzen.  AEK

gain. Udalarekin, oraindik, ez dugu harremanik eduki.

J.M.: Ekintza bat egiten dugunero bilatu behar dugu finantzazioa, baina hori ere interesgarria da. Ez gaude inongo administrazioari lotuta. Lanberri auzo elkarteak lokala uzten dugu, adibidez, bilerak egiteko. Bestalde, Euskara Patronatuak ematen dituen diru laguntzetara aurkezteko datorren urtera arte itxaron behar dugu, eta lan handia daukagu orain elkarteari forma ematen.

Bi jarduera antolatu dituzue orain arte. Euskararen Eguna dator laster; baduzue ideiarik martxan?

M.F.: Zerbait sinplea egin nahi

genuen. Euskaldunok euskaraz hitz egiteko ditugun trabak azaleratu nahi ditugu, pairatu ditugun egoera zailak eta erasoak. Kartel batzuk egitea pentsatu dugu, sentsibilizatorako.

J.M.: Ez genuen festarik edo ezer ludikorik egin nahi, eta aldarrikapen moduko bat izango da. Jendearen bizipen negatiboak jaso eta kartel batzuetan islatzea. Ez da jai egun bat, aldarrikapen egun bat da.

Aisialdi ekitaldiak antolatzeaz gain, ba al duzue beste eremuetan (hezkuntza, administrazioa, komertzioak) eragiteko asmorik?

J.M.: Euskararen Egunekoa auzoko komertzioarekin lotu nahi

dugu, adibidez. Gehienen partetik nahiko jarrera irekia ikusi dugu, nahiz eta euskaldunak ez izan, baina badago baten bat soilik gazteleraz funtzionatzen duena eta horrekin badaukagu zer edo zer lantzeko. Hizkuntzan eragitea zaila da, hemen hizkuntza gunerik ez dagoelako; La Salle dago Loiolan eta ikastola Martutenen. Hala ere, atera diren ideiek lotura handia dute kulturarekin; gure oinarria da, nolabait.


M.F.: Euskararen Egunean egingo dugunak, agian, emango digu jarraitzeko bultzadatxo hori. Beste ideia batzuk etor daitezke, beste alor batzuei lotuta. Denetara gau-de irekita. ●

MariaReinaEskola

Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

Ate irekiak abenduaren 3, 17:15ean edo banakako bisita eskatu.

Ametzagana 58 • Egla • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com



Euskara Eguneko egitarauak



AIETE

Azaroak 29

18:00etan, III. Aieteko Izarrak, kultur etxean.

Izen ematea: Aieteko edozein ikastetxetan edo aieteneuskaraz@gmail.com helbidean.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

17:00etan, *Orm Elurretako erreinuan* haurrentzako filma, kultur etxean.

19:00etan, Kantua eta Zikina.

Ibilbidea: Hiru Damatxo, Etxadi, Munto eta Jolastoki.

21:30ean, Jolastokin, bertso afaria, Peru Aiarza, Aiert Ordoñez, Andoitz Urdapilleta eta Manex Mujika bertsolariekin.

Txartela lortzeko, idatzi aieteneuskaraz@gmail.com helbidera.

ALTZA

Azaroak 29

10:00-11:00, Mintzodromoa, Larratxo Kultur Etxean.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

12:00etan, Herrera Kantuz kantujira, Herreran barrena, espaloitik.

12:15ean, egurrezko jokoak haur eta helduentzat, Herrerako frontoian.

15:30ean, puzgarriak, Herrerako frontoian.

17:45ean, txapa tailerra, gaztelekuan.

18:45ean, mutxikoak, Herrerako frontoian.

19:30ean, kontzertua, Herrerako frontoian: Fan&GO erromeria.

22:30ean, Lumaaurdin DJ-a, Herrerako frontoian.



LAIA
ABOKATUAK

Aurrera euskara !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

Tel.: 943-27 97 96

Bazkariak

KATA
ecia

Gora euskara!



Abenduak 3

17:00-18:30, haurtxokoa, euskara sustatzeko jolasak: txapa tailerra eta horma irudi margoketa (5-11 urte).

17:45-19:00, gaztelekuan, euskal musikaren ginkana (12-17 urte).

19:00-20:00, Larratxoko plazan, Eider Rodriguezen Eraikuntzarako Materiala lanaren irakurketa publikoa.

AMARA**Abenduak 3**

15:00etan, Amara Berri ikastetxeko Euskararen Eguna, Easo plazan. Euria egingo balu, Amarako frontoian.

16:30ean, txokolate jana eta euskal dantzak, Easo plazan. Euria egingo balu, Amarako frontoian.

17:30ean, disko festa eta euskaraokea, Easo plazan. Euriarekin, Amarako frontoian.

AMARA BERRI**Azaroak 29**

16:30ean, Jaialdia umeentzat: buruhandiak, erraldoiak, musika, umeen marrazkien erakusketa, jolasak eta txokolate jana. Etxeberrien plazan, Amara Berri ikastetxetik abiatuta.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

20:30ean, bertso afaria, Ikasbide Kultur Elkartean (Isabel II.a hiribidea, 15, behe), Joanes Illarregi eta Maialen Arzallus bertsolariekin. 25 euro.

Abenduak 3

19:00etan, Amara Kantuzen kantujira, Ikasbide Kultur Elkartetik abiatuta.

ANTIGUA**Azaroak 29**

19:30ean, Donostia Bertsotan, Lugaritz Kultur Etxean: Beñat Gaztelumendi,

Unai Iturriaga, Oihana Iguaran eta Uxue Alberdi. Gai jartzailea: Iker Iriarte. 5 euro.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

10:00etan, auzoko txistularien diana, Gaskonia plazatik abiatuta.

11:00etan, plaza dantzak, Gaskonia plazan.

12:00etan, kantujira eta trikitilariak, Matia kalean barrena, Gaskonia plazatik.

16:00-18:00, Antiguako frontoian, haurrentzako jolasak (5-11 urte).

18:15ean, txokolate jana, Antiguako frontoian.

18:30ean, disko festa, Antiguako frontoian.

Abenduak 3

17:00-18:30, Jakintza ikastolan, mahai jolasak euskaraz. Lehen hezkuntzako haurrentzat eta euren familientzat.

Abenduak 3.**Euskararen Nazioarteko Eguna**

Zu zeu izan Kutxabanken ere, bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.

Kutxabanken Hizkuntza Politika
ikusi hemen: www.kutxabank.eus



Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

19:00etan, Txirain elkarteak, Euskal kantagintza berriaren historia laburra emanaldi musikatu, Andoni Tolosa Morauren eskutik.

AÑORGA

Azaroak 29

19:45ean, bakarriketa saio mundiala: Esti Curiel, Erik Urbieta eta Ander Malbadi umoregileekin.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

09:00etan, frontoian, su piztea, gosaria eta babarrun prestaketa.

11:30ean, frontoian, txotx irekiera eta pintxo dastaketa, auzoko trikitilariak girotuta.

14:30ean, frontoian, bertso bazkari herrikoa, bertso eskolaren etxetik.

17:30ean, frontoian, mus txapelketa.

Abenduak 3

10:00etan, kantujira auzoan barrena, Amassorrain ikastolatik abiatuta.

12:00etan, euskararen galdetegiaren sari banaketa, Amassorrain ikastolan.

14:45ean, Amassorrain ikastolan, Talentu Bila ikasleen lehiaketa.

16:15ean, Amassorrain ikastolan, Eskutitza abestia. EITB Maratoiko erronka, denok batera abestuz.

16:30ean, Amassorrain ikastolan, euskararen aldeko auzo argazkia.

EGIA

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

17:00-18:15, haurtxokoa: *Euskara mezuak, euskara photocallean!* Eva gomarekin sortutako ahoak eta kartulinazko bunbuiloak elkarturik, hainbat mezu sortuko dituzte photocallean argazkia ateratzeko. HH5etik LH5era arteko haurrak eta horien familiak.

18:00-19:00, gaztelekuan euskaraokea. LH6tik 2. Batxillergora arteko gazteak.

Abenduak 2

19:00etan, Plaza Haundin, plaza dantzak, Trebeska taldearen eskutik.

Abenduak 3

18:00-19:00, gaztelekuan, euskarazko mahai jolasak, euskal musikaz girotuta. LH6tik 2. Batxillergora arteko gazteak.

Abenduak 7

12:00etan, kantujira, Kata tabernatik hasita, auzoan barrena.

GROS

Azaroak 29

21:00etan, Suhazi jatetxean, bertso afaria. Groseko Irrintzi AEK euskaltegiak antolatuta.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

16:30ean, Katalunia plazan, Zuhaitzi-Manteo taldearen dantza emanaldia. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

16:30ean, Katalunia plazan, informazio mahaia: etorri mugikorra euskaraz konfiguratzera. Parte hartzaileek zozketa batean parte hartuko dute: Errigora saskia eta liburuak erosteko bonu bat. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

17:00etan, Katalunia plazan, Margoketa Txokoa haurrentzat eta euskararen aldeko jolasa. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

17:00-19:00, Katalunia plazan, euskal mahai jolasak gazteentzat. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

17:00etan, Katalunia plazan, euskal ginkana gazteentzat. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

18:00etan, Katalunia plazan, euskal bisera tailerra gazteentzat. Euria egingo balu, Zuhaitzi eskolan.

IBAETA

Azaroak 29

17:30ean, musika eta jaialdi hasiera Karlos Santamaria plazan edo Lautximeneta frontoian (euria).

17:30etik aurrera, eskulanak eta aurpegi margoketa Karlos Santamaria plazan edo Lautximeneta frontoian (euria).

18:00etan, haurrentzako herri kirolak Karlos Santamaria plazan edo Lautximeneta frontoian (euria).

PLATERO
taberna
Aurrera euskara!

PAPELERIA
DELTA
PAPELERIA
Aurrera euskara!
Ordutegia: 09:00etatik 19:30etara.
Larunbatetan 10:30etatik 13:30etara.
Andrestegi, 2 behea - ANTIGUA - Donostia
943-22 38 98 - 663875255
deltapapeleriass@gmail.com



17:00etan, eskolan, musika eta jolas emanaldia haurrentzat: Txuri beltza da ta... (3-12 urteko haurrak eta euren senideak).

19:00etan, Itsas Arrue Kultur Etxean, Dana D'Capricho taldearen kontzertua (doinu euskal-kubatarrak). Kontzertuan zehar, jateko aukera egongo da.

Abenduak 1

12:30ean, plazan, kantujira, herriko jubilatuen eskutik.

18:00etan, eskolan, III. Euskaldun Peto Lehiaketa. Herriko hainbat talde lehian arituko dira Igeldoko Euskaldun Peto titulua lortzeko. Ohorezko Euskaltzain izendatuko dira irabazleak.

INTXAURRONDO

Azaroak 29

17:00-19:00, Bernart Etxepare plazan, jolasak eta ikastaroak haurrentzat.

18:30-19:30, karaokea Karlos Santamaria plazan edo Lautximeneta frontoian (euria).

19:30ean, buruhandiak Karlos Santamaria plazan.

19:50ean, dantza eta jaialdi bukaera Karlos Santamaria plazan edo Lautximeneta frontoian (euria).

Abenduak 1

12:00etan, txotxongiloak: *Osaba Untxia eta Koioeta*, Lautximeneta frontoian.

IGELDO

Azaroak 29

17:00etan, Itsas Aurre Kultur Etxean, haur hezkuntzako umeentzako zinema.

18:30ean, Itsas Aurre Kultur Etxean, lehen hezkuntzako umeentzako zinema.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

17:00etan, Itsas Arrue Kultur Etxean, sexologia tailerra, 12 urtetik gorakoentzat.

euskara eta kirola
beti lagun



donostia **KIROLA**



LOIOLAKO ERRIBERA

Azaroak 29

18:00-20:30, Paloma Miranda plazan, Urumeako izarrak talentu lehiaketa eta ondoren karaokea. Izen ematea: info@erribertxo.eus helbidean.

21:00etan, Zubiberri elkartearen, bertso afaria. Bertsolariak: Amaia Agirre eta Aner Peritz. Txartelak Piruleta goxoki dendan salgai.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

17:30etan, Ikasbide ikastolako gimnasioan, antzerkia: Munduari itzulia 80 egunetan, Eriz Alberdiren eskutik.

18:30etan, Paloma Miranda plazan, txokolate jana, musikaz lagunduta.

Abenduak 1

12:00etan, Nahi liburu dendatik, kantujira, Azken Zutik taldearekin.

MARTUTENE

Azaroak 29

17:00etan, Pilarreko Andre Mariaren auzunean (Oktogonoko kalea), euskararen horma irudi komunitarioa eta sokatira herrikoia.

19:00etan, auzoan barrena, mintzapotea.

Abenduak 3

18:30etan, Sarroeta auzo elkartearen, bideoklip lehiaketako lanen proiektzioa eta sari banaketa.

18:30-19:30, Bernart Etxepare plazan, plaza dantzak, musika eskolako ikasleek lagunduta.

19:00etatik aurrera, Bernart Etxepare plazan, gaztaina erreak eta edaria, nahi adina.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

14:00etan, Zulo Zahar elkartearen, bertso bazkaria. Bertsolariak: Maddi Ane Txoperena eta Xabat Illarregi. 20 euro.

Abenduak 1 · Intxhurgunean

10:30etan, ipuin kontalaria.

11:15etan, eskulanak eta horma irudiak.

12:00etan, hamaiketakoa.

Abenduak 3

19:00-21:00, Intxaurrondo Kultur Etxean, Plazara Goaz euskara

elkartearen 25. urteurreneko erakusketaren aurkezpena. Ondoren, mokadua.

Abenduak 5

17:00etan eta 19:00etan, Intxaurrondo Kultur Etxean, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldiak. Sarrerak Donostia Kulturaren webgunean salgai.

LOIOLA

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

13:00etan, trikipoteoa, auzoan barrena.

14:30etan, Hontza elkartearen, basurde jana eta euskal dantzak.

Abenduak 3

17:30etan, kultur etxean, ipuin kontalaria.

OLIYOS
TABERNA · JATETXEA

Gora euskara!

Jose txo
Irurtia Balerdi

Erregezaintza 4,
DONOSTIA
Tel.: 943-21 49 89



GORA EUSKARA!

CACTUS
TABERNA

943-05 41 67

PLAZA BERRI · EGIA

PARTE ZAHARRA

Azaroak 29

19:00etan, Plaza Berriko arkupeetan, bertso saioa. Bertsolariak: Julio Soto, Haira Aizpurua, Peru Aiartza eta June Aiestaran. Gai jartzailea: Andoitz Urdapilleta.

23:00etan, Herria tabernan, euskaraokea.

Azaroak 30 · Gozaldia eguna

12:00etan, Plaza Berritik abiatuta, kale animazioa eta kantujira udaleko txistulariekin, auzoan barrena.

13:30ean, Plaza Berrian, harri jasotze erronka: 100 kiloko zilindroari 50 altxaldi emango dizkio?

13:45ean, Plaza Berrian, euskararen aldeko auzo argazkia.

14:30ean, Arrano Beltza Euskal

Tokian, herri bazkaria. Txartelak Ordizia eta Belfast tabernetan salgai. 20 euro (ikasle eta langabetuek 15 euro).

18:00etan, Plaza Berrian, udaleko txistulari bandaren erromeria.

19:00etan, Ikatz kaletik abiatuta, Kitadelpare txaranga.

21:00etan, Trinitate plazan, erromeria: 3ttu taldea.

Abenduak 1

09:00etan, Plaza Berrian, goiz deia, txistulari, kantari eta dantzariekin.

12:15ean, Kresala elkartearen kontzertua euskararen inguruko kantekin, udal txistulari bandak lagunduta.

17:00etan, Kresala elkartearen, Lur Korta ipuin kontalaria. Ondoren, txokolate jana.

Abenduak 2

19:00etan, San Jeronimo kaleko hitzaldi aretoan, bakarrizketak: Amaia Ruiz de Galarreta, Ander Malbadi eta Julen Portillo.

ZUBIETA

Abenduak 1

18:00etan, elizan, bakarrizketa: Bea Egizabalen *Gregoria*.

DONOSTIA

Abenduak 3

10:00etan eta 11:00etan, Mintzodromoa, San Telmo museoan.

19:00etan, Antzoki Zaharrean, dokumentala eta antzezlanak. Pantailak Euskararen *Urak eginen du* dokumentala eta Barrexearen *Nahastumbury* ikuskizuna. 5 euro.



Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

DONOSTIA

ANTIGUAKO AEK Erregezain, 22 943-21 80 88 · antigua@aek.eus	AMARA BERRI AEK Ordoñez, 7 (ARCCO parean) 943-47 45 92 · amara@aek.eus	GROSEKO IRRINTZI AEK Iztueta, 3, behea 943-32 76 11 · gros@aek.eus
--	---	---

marea euskaraz aldatuko dugu



euskaraz
bagera